

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea etxerako ur hornidura, estolderia eta arazketa eta zabor bilketako zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen erroldak, 2020ko laugarren hiruhilekokoak**

Egin dira etxerako ur hornidura, estolderia eta arazketa eta zabor bilketako zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen erroldak, 2020ko laugarren hiruhilekokoak. Horrela, bada, jendaurrean jartzen dira, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Dulantzi, 2021eko urtarrilaren 28a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*